




HAIZEKO AMA BIRJINAREN BASELIZA (1.291 m)

HASIERA:
 BURGI
 ERDI AROKO ZUBIA



Burgitik Hitzeko Ama Birjinaren baselizara igotzen den bide klasikoa da. Salvatierra de Escatik (Zaragoza) ere igotzeko aukera dago. Herrian hasita (632 m), zubitik Ezka ibaia zeharkatu eta eskuineko hormigoizko bidea hartuko dugu. Metro batzuk aurrerago bide hau utziko dugu, gora doan eta landaretza sarria duen bidexka hartzeko. Bidexka honek GR 15 zaharrarekin bat egiten du batzuetan. Pixkanaka gora joanen gara, eta Burgiko arroilako ikuspegi paregabeak izanen ditugu. Txabalko iturriko saihesbidetik igaro eta gero, landaretza gutxiago duen eremu lauago batera helduko gara, Hitzeko Ama Birjinaren baselizara zuzenean doan mendi bidea hartzeko (1291 m). Minutu gutxitan helduko gara baselizara (1677an eraikia). Ondean egoera bikainean dagoen aterpe librea aurkituko dugu. Baselizatik Pirinioetako ikuspegi ezin hobea izanen dugu; mendebaldean Illoneko zerra, eta iparraldean Burgiko arroila.